

Bai, baina ez hainbeste



**LAURA PENAGOS
RODRÍGUEZ**
ANTZEZLEA ETA
SORTZAILEA

Ez, hemen Euskal Herrian ez da zerutik oparirik erortzen. Txuletak, gaztainak eta salda ez dira musu-truk lortzen. Lurralde honetara iristen garenean, harresi tente, erraldoi, apurtezin eta ikusezin batek inguratzen gaitu hemengoak ez garenok. Maiz entzuten diot jendeari esaten –boterearen jabe eta inoiz galdu ezin duen autoritate moral batez– gu ez gara integratzen, ez dugula euskara ikasten, ez gara hemengo kulturara moldatzen, ez ditugula arauak jarraitzen eta abar, eta abar... Ematen du gu gara arazo bakarria Euskal Herrian. Herri honetan bi inguru hegemoniko daude nolabait esateko, euskalduna eta erdalduna. Antropologikoki eta kulturalki oso desberdinak dira, baina antzekotasunik bilatu nahi izanez gero, biak klasistak bezain arrazistak direla esan daiteke.

Egia da mundu euskaldun honek borroka latzak egin dituela, miresgarriak nire ustez, baina gero eta nabarmenagoa da oraindik lan handia duela egiteko gizarte integrazioan. Eta, oro har, gizartemultzo osora hedatzen da egoera hori. Hemengoak ez garenok eta euskaraz hitz

Migratzaile izanda, euskara ikasteak eta erabiltzeak ez du ahalbidetzen gizarteratzeko benetako aukerak izaterik, bazterreko kategoriakoak izaten jarraitzen dugu

egiten dugunok gero eta zalantza handiagoak ditugu euskara ikasteak omen dakartzan integrazio aukeren inguruan.

Neuk ere egia gaindiezina balitz bezala hitz egin dut integrazio bide horren alde, baina onartu behar dut gaur egun ez dudala argi ikusten. Ez naiz bide hori hain seguru egiten ari jada, tamalez. Egiaztatzen dudana da egiten duguna egiten dugula ezin gara “paradisu zuri horretan sartu”. Ez gara nahikoa, ez gara hemengoak, baina batez ere, ez dago interesik,

ez dago borondate politikorik, ez dago benetako espazio sozialik ezta kulturalki ere gure artean harreman horizontalak eraikitzeko. Desberdintasuna sistema honen oinarrian dago. Nork bere botere kuotari eutsi nahi izaten dio beti, kuota hori handia nahiz txikia izan. Inork ez du nahi horrek esku artetik ihes egiterik. Inork ez.

Zergatik ikasi euskara? Zertarako? Galdera horiek oso zilegi direla uste dut. Irakurtzen edo jarraitzen nauen jendeak badaki euskara maite dudala, eta oso garrantzitsua iruditzen zaidala hizkuntza ikastea eta hitz egitea. Baina, nire ustez, migratzaile izanda, euskara ikasteak eta erabiltzeak ez du ahalbidetzen gizarteratzeko benetako aukerak izaterik, bazterreko kategoriakoak izaten jarraitzen dugu. Oso kontu ezberdinak dira.

Askotan zoriontzen gaituzte euskara ikasi dugulako, miresgarria dela esaten digute, meritu handia dugula... baina badaezpada kendu paretik, hemen toki txikia dugu eta ez gara denok sartzen. Hitzak ereiten jarraituko dugu euskaraz, baina jakin behar dugu nekez iritsiko direla lur aberats eta emankorrera. ●

VI. BERTSO SARIKETA

AIXITA 2026

Urtarrilak 25, igandea,
17:00etan
KULTUR ETXEA
IRURTZUN

(bi jartzaileek: Zigor Ibarra eta Anezi "Zian")

AÑEZI IBARRA (Donostia)	GIOR IBARRA (Donostia)	ANAZI IBARRA (Gasteiz/Artea)	GIOR IBARRA (Donostia)	ANAZI IBARRA (Gasteiz/Artea)	GIOR IBARRA (Donostia)

BABESLEAK

HEDABIOE LAGUNTZAILEAK